



AGINDUA, 2019KO UZTAILAREN 23KOA, TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUARENA, KONTSUMITZAILEEN ETA ERABILTZAILAILEEN ESTATUTUARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUA EGITEKO PROZEDURARI HASIERA EMATEKOA.

Duela 15 urte baino gehiago jarri zen indarrean —2003ko abenduaren 31n, hain zuzen— Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen bidez onartua. Jakina, ordutik hona asko aldatu dira kontsumo-ohiturak: ohitura berriak sortu dira, eta arauak ere moldatu egin behar dira egoera berri horietara.

Ohitura berri horien artean daude, besteak beste, honako hauek:

- Produktu berriak merkaturatu dira, batez ere teknologiaren arloan.
- Asko ugaritu dira urrutitik edo merkataritza-gunetik kanpora egindako kontratazioak.
- Zerbitzu-eskaintzaile berriak agertu dira, batez ere web-orrien bidez, eta ez da erraz jakiten zein den haien parte-hartzea, posizioa eta erantzukizun juridikoa.
- Kontratazioetako dokumentazioa lasaiago egiten da: ugaritu egin dira bai ahozko edo idatzi gabeko kontratuak, bai atxikitze-kontratuak ere.
- Urrutiko produktuen publizitatea egiteko eta merkaturatzeko modu berriak azaldu dira, batez ere zerbitzuak emateko arloan, eta, ondorioz, sarri aldatzen da enpresa zerbitzu-emailea.

Bestalde, azken urte hauetan onartu diren arauen ondorioz, asko aldatu da alderdi materiala eta antolakuntza, eta Erkidegoko arautegiak moldatu beharra dauka.

Hala, alderdi materialari dagokionez, azpimarratzekoa da 1/2007 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorraren eta beste lege osagarri batzuen testu bategina onesten duena; bai eta estatuko nahiz Europako hainbat xedapen ere, kontsumoaren alderdi sektorialak arautzen dituztenak.

Antolakuntzaren arloan, funtsezkoa da ekainaren 29ko 9/2007 Legearen bidez sortutako Kontsumobide—Kontsumoko Euskal Institutua, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko orduan Eusko Jaurlaritzak dituen politikak definitu, planifikatu, bultzatu eta gauzatzeko asmoz jaioa.

Horiek denak horrela, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen estatutu berri bat egitea proposatzen da, orain indarrean dagoen abenduaren 22ko 6/2003 Legearen ordean, helburu hauekin:

- Administrazioen artean kontsumoaren arloan dauden harremanak arautzea, bai eskumenei bai lankidetzari dagokionez, kontuan hartuz egungo antolaketa.
- Kontsumo-ohitura berriak arautzea, batez ere urrutitik edo merkataritza-gunetik kanpora egindako kontratazioak, eta kontzeptu berriak sartzeari, hala nola pertsona kaltebera, jardunbide egokien kodeak, kontsumo arduratsua, desgaituentzat irisgarria den informazioa eta indarkeria ekonomikoa.
- Arautegi horren bizkarrezurra kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak izatea, batez ere prestakuntzaren eta informazioaren arloetan, kontsumoa jasangarria eta arduratsua izan dadin.
- Administrazioaren aldetik, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babesteko prozedurak eguneratzea eta garatzea.
- Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen segurtasuna indartzea, bai eta kontsumo-ikuskaritza ere, indarrean den arauan biak geratu baitziren garapenaren zain baina azkenean ez baitziren garatu.
- Arau-hausteen katalogoa garatzea, sistema zabal eta zehatz baten bidez, era horretan bete ahal izateko segurtasun juridikoari buruzko gomendioak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean agertzen direnak.
- Azken urteotan Europar Batasuneko arautegian onartu diren edukiak gehitzea, hala nola: produktuen segurtasun orokorra, produktu akastunen erantzukizuna, zerbitzu-emateen segurtasuna eta erantzukizuna, merkataritza elektronikoa edo abusuzko klausulak.

Gobernu Kontseiluak Xedapen Orokorrak Tramitzatzeko Jarraibideak onartzeko 2017ko abenduaren 12an hitzartutako Akordioaren arabera, aurreproiektuaren idazketa baino lehenagoko herri galdeketa bitartez, gizartearen iritzia eskuratu da, hain zuzen, arauaren ondorioz kaltetun izan daitekeen subjektu eta erakunde adierazgarrienarenak, Kontsumobide-Kontsumo Euskal Institutuko zuzendariaren ebazpenaren bitartez, 2019ko maiatzaren 29koa, Euskal Autonomi Erkidegoko Administrazio publikoen egoitza elektronikoaren ohar taulan argitaratu zena, herritarrei espresuki beren iritzia emateko gonbidapena eginez hogeitaz baliadun eguneko epean. Aldi berean, informazioa *Legegunean* jarri da ikusgai, 19/2013 Legeak, abenduaren 9koa, Gardentasuna, informazio publikora sartzeari eta Gobernu Egokiarena, bere 7.c artikulua ezartzen duena betetzeko, baita *Irekia* plataforman ere.

Horren guztiaren ondorioz, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikulua betez, honako hau

XEDATZEN DUT:

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko Legearen aurreproiektua egiteko prozedura hastea, honako oinarri hauen arabera:

Lehenengoa.- Arauaren xedea eta helburua.

Agindu honen bidez abiarazten den lege-aurreproiektuaren xedea da Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak babestea eta sustatzea, eta orain indarrean dagoen Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren 6/2003 Legea, abenduaren 22koa, ordezkatzea, esparru hau guztiz araututa gera dadin.

Bigarrena.- Proiektuaren bideragarritasun juridikoa eta materiala.

Ekimen honi eta aurreko arautegiari dagokionez, EAEko Autonomia Estatutuaren 10.28 artikulua Euskadiri ematen dio kontsumitzailea eta erabiltzailea babesteko eskumen eskusiboa, kalterik egin gabe prezioen politika orokorrari, ondasunak Estatuan libre zirkulatzeari eta lehia babesten duen legeriari.

Espainiako Konstituzioaren 149.1 artikulua ez du aipatzen Estatuaren eskumena denik kontsumitzailea eta erabiltzailea babestea, baina Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak dioen moduan (80/2002 Irizpena, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen legearen aurreproiektuari buruzkoa), horrek *“ez du esan nahi Estatuak ez duenik atribuziorik arlo horretan, beste eskumen batzuen arabera. Hori horrela da EAEko Autonomia Estatutuko 10.28 artikuluko azken tartekiko salbuespenagatik, baina, batez ere, kontsumitzailearen eta erabiltzailearen babesa diziplina askokoa izanik Estatuko hainbat eskumeni eragiten dielako.”*

Kontsumitzailea eta erabiltzailea babesten dituzten eskumen guztiak errespetatuz, Aholku Batzordeak irizpen berean dioen moduan, *“EAEko Autonomia Estatutuko 10.28 artikuluari jarraikiz, Euskal Autonomia Erkidegoak eskumena du kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko lege bat egiteko eta onartzeko; hargatik arautegi berri hori eskumenen banaketarekin bat datorren xeheki aztertzeari utzi gabe.”*

Ohar horien gainean oinarritzen da proiektuaren bideragarritasun juridikoa.

Ikuspuntu materialetik, ekimenak ez du inolako eragozpenik gauzatu ahal izateko.

Hirugarrena.- Antolamendu juridikoan izango duen eragina.

Arautegi hori onartzean indargabetu egingo da abenduaren 22ko 6/2003 Legea, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuarena.

Laugarrena.- Eragin ekonomikoa.

Memoria ekonomikoan adierazitakoari kalterik egin gabe, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua araberak, ekimenak, berez, ez du Kontsumobide—Kontsumoko Euskal Institutuaren giza baliabide ez baliabide material berririk beharko, hark lehendik ere bultzatzen eta burutzen baititu kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko Eusko Jaurlaritzaren politikak.

Ekimen horrek ez du eragin ekonomiko aipagarrikerik izango beste administrazio batzuetan, ez eta kontsumoaren sektorean ari diren pertsona fisikoetan edo juridikoetan ere.

Bosgarrena.- Beharrezkoak diren izapideak eta txostenak.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen araberak, aurreproiektu hau egiteko prozeduran honako izapide hauek beteko dira:

1.- Agindu hau *Legesarean* argitaratzea.

Agindu hau ezagutza partekatuko Legesarea gunean argitaratuko da, EAEko Administrazio Orokorreko langile juridikoentzat, eta era horretan beteko da Gobernu Kontseiluak Xedapen Orokorrek Tramitatzeke Jarraibideak onartzeko 2010eko abenduaren 28an hitzartutako Akordioa.

2.- Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburuaren Agindua, aurreproiektua aurrez onartzeari buruzkoa.

3.- Legebiltzarrera bidaltzea.

Legearen aurreproiektua aurrez onartu eta Legebiltzarrera bidaliko da Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56.1 artikulua betetzeko, ekainaren 2ko 8/2016 Legean idatzitako moduan.

4.- Txostenak eta memoriak egitea.

Txosten eta memoria hauek egingo dira:

4.1.- Genero-eraginari buruzko txostena.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 19. artikulua araberako, genero-eraginari buruzko aurre-ebaluazio bat eginez beteko da *Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko Akordioa, genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeko jarraibideak onartzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekidin eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideei buruzkoa.*

4.2.- Txosten juridikoa.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saileko Aholkularitza Juridikoak txosten baten bidez aztertuko ditu aurreproiektuak zer oinarri objektibo duen, edukia legearekin eta zuzenbidearekin bat datorren, eta betetzen ote diren araugintza-teknikako jarraibideak, eta era horretan beteko da abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 7.3 artikulua, bai eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42.1.a) artikulua ere.

4.3.- Enpresen gaineko eraginari buruzko txostena.

Euskadiko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiari Laguntzeko ekainaren 28ko 16/2012 Legearen 6. artikuluaekin bat etorrira, Saileko zerbitzu juridikoek txosten baten bidez aztertuko dute arau-ekimenak zer eragin duen enpresak eratzeko, martxan jartzeko eta funtzionatzeko prozesuetan.

4.4.- Memoria ekonomikoa.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikulua betetzeko, memoria ekonomiko baten bidez balioetsiko da zenbatekoak diren ekimenaren kostua, gastuak eta sarrerak, zer eragin duen administrazio publikoko aurrekontuetan, iturrietan eta finantzatzeko moduetan, bai eta zer kostu izan dezakeen ere beste administrazio publikoetan, partikularrengan eta ekonomian oro har.

Memoriaren edukia bat etorriko da EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuarekin, bai eta EAEko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuarekin ere.

4.5.- Prozeduraren memoria laburra.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.2 artikulua betetzeko, memoria batean adieraziko dira zer aurrekari dituen, zer izapide egin diren eta aurreproiektuan zer aldaketa egin diren jasotako ohar eta iradokizunetara egokitzeko, beharrezkoa bada behar bezain zehatz justifikatuta zergatik ez diren onartzen txostenetan bildutako oharrak.

Memorian agertuko da, era berean, arau-proiektuak izango dituen administrazio-kargen eragina, arautegi berriak alferrikako trabarik erantsi ez dezan.

5 - Nahitaezko txostenak eta kontsultak.

Honako txosten eta kontsulta hauek bilduko dira aldi berean:

5.1.- Administrazio Publikoetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena.

Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioa txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuan aurreikusitako txostena eskatuko da.

Txosten hori Administrazio Publikoetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak eman beharko du, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.2.l) artikulua beteta hartara.

5.2.- Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundearen txostena.

Arauren genero-eraginari buruzko egiaztapen-txostena eskatuko da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 21. artikulua beteta hartara.

5.3.- Kontsumobide - Kontsumoko Euskal Institutua erakunde autonomoaren txostena.

Kontsumobide sortzeko 9/2007 Legearen 4.1.o) artikuluari jarraikiz, txostena eskatuko zaio Kontsumobideri, nahitaezkoa baita.

5.4.- Euskadiko Kontsumoko Aholku Batzordeari kontsulta.

Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuaren abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 36.a) artikulua araberan, kontsulta egin behar zaio batzorde horri.

5.5.- Kooperatiben Goren Kontseiluaren txostena.

Euskadiko Kooperatiben ekainaren 24ko 4/1993 Legearen 145.2 b) artikulua betetzeko, txosten bat egiteko eskatuko zaio kontseilu horri; izan ere, kooperatibei edo haien erakundeei zuzenean eragiten dien lege-xedapeneko proiektu bat da.

5.6.- Lehiaren Euskal Agintaritzaren txostena.

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko otsailaren 2ko 1/2012 Legearen 3.5 artikuluari men eginez eskatuko da txostena, haren irizpena nahitaezkoa baita arlo horri eragiten dioten proiektuetan.

6.- Aurreproiektua Eusko Jaurlaritzako Sailerata eta eragindako beste administrazioetara helaraztea.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 9. artikuluari jarraikiz, aurreproiektuaren testua helaraziko zaie organo eta erakunde hauei:

6.1.- Eusko Jaurlaritzako sailei.

6.2.- Foru-aldundiei.

6.3.- Bilbo, Donostia eta Vitoria-Gasteizko udalei, eta EUDEL—Euskadiko Udalen Elkarteari.

7.- Interesdunei entzutea.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikuluan xedetutakoaren arabera, interesdunei entzungo zaie, eragindako pertsonak ordezkatzan dituzten erakunde eta elkarten bidez, esanguratsuak direlako sektorean (enpresen elkarteak, kontsumitzaileenak, merkataritza-ganberak, sindikatuak etab.).

8.- Jendaurreko informazio-aldia.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 8. artikulua betetzeko, jendaurreko informazio-aldi bat izango du proiektuak, 20 egun baliodunekoa, eta EHAA eta Eusko Jaurlaritzaren goitza elektronikoan argitaratuko da.

9.- Amaierako txostenak.

Entzunaldia eta jendaurreko informazio-aldia amaitzean, nahitaezko txosten hauek eskatuko dira, hurrenkera honetan:

9.1.- Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena.

Udalerrien eskumenei beren-beregi eragiten dien proiektu arauemaile bat denez gero, txosten bat egitea eskatuko zaio batzorde horri, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 91. artikulua betetze aldera.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedura aplikatzeari buruzko Jarraibideak onartzeko 2017ko abenduaren 12ko Gobernuaren Kontseiluaren aginduaren arabera, Tokiko Gobernuen Batzordearen aurrean eskatuko da txostena, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako Zuzendaritzak jasoko du, eta txostenarekin batera aurkeztuko dira, halaber, ordura arteko espedientearen kopia eta izapidea hobetzeko behar diren dokumentuak —bai alderdi ekonomikoei buruzkoak bai eskumenei buruzkoak—.

9.2.- Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen txostena.

Organo hori arautzen duen 8/2012 Legearen 3.1.b) artikuluari jarraikiz, txostena eskatu behar zaio batzorde horri, aurreproiektua lotuta dagoelako ekonomia- eta gizarte-politikarekin.

9.3.- Ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena.

Txostena eskatuko zaio Kontrol Ekonomiko Bulegoari, urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuz onartutako EAEko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategineko III. tituluko IV. Kapituluaren betetzeko, bai, halaber, urriaren 31ko 464/1995 Dekretua betetzeko ere, EAEko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen baititu.

9.4.- Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpena.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluekin bat, irizpena eskatuko zaio batzorde juridikoari, nahitaezkoa baita.

10.- Dokumentazioa Legebiltzarrera bidaltzea.

Jaurlaritzari buruzko ekainaren 2ko 8/2016 Legearen 56.2 artikuluari jarraituz —lege horrek ekainaren 30eko 7/1981 Legea aldatu baitzuen—, Aholku Batzorde Juridikora bidalitako dokumentazio bera bidaliko da Eusko Legebiltzarrera ere, legebiltzar-taldeek horren berri izan dezaten.

11.- Gobernu Kontseiluak aintzat hartzea eta onartzea.

Gobernu Kontseiluak legearen aurreproiektua eztabaidatu eta onartu egingo du, abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 13. artikuluekin bat etorruta.

12.- Euskararen erabilera.

Aurreproiektua ele bitan idatziko da, entzunaldia baino lehen, eta forma elebidun hori erabiliko da nahitaezko txostenak eta irizpenak eskatzeko, hala xedatzen baitu Lege, legegintza-dekretu, dekretu edo agindu forma hartzen duten xedapen orokorrak ele bitan egiteko neurriak onartzen dituen Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 14ko Akordioaren hirugarren atalak.

Hori betetzeko eta azaroaren 24ko Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko 10/1982 Legearen 8.1 artikularekin bat egiteko, IZO-Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak testuak itzuliko ditu, halaxe xedatzen baitu apirilaren 3ko 48/2012 Dekretuak, EAEko Administrazio Orokorreko eta Erakunde Autonomoetako itzulpen-zerbitzuak zentralizatzeko agindua ematekoak.

13.- Europar Batasunaren aurrean egin beharreko izapideak.

Ez dago inolako izapiderik egin beharrik Europar Batasunaren aurrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 23a.

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMOKO SAILBURUA
SONIA PÉREZ EZQUERRA.